

Europako mapa ordenatzera

Kroaziako selekzioa faborito gaur Alemanian hasiko den Eurobasketean

Gaur hasi eta uztailaren 4ean bukatuko da Alemanian jokatu den Europako Txapelketa. Lehian 16 selekzio, lau multzotan banatuta. Faboritoa, itxura batean, Kroazia. Txapelketa honetako bost aurrenek 1994ean Kanadan izango den Mundialerako txartela eskuratuko dute. Eurobasket-eko ezustea Eslovenia izan liteke.

ENEKOITZ ESNAOLA / DONOSTIA

Europako Txapelketa batean inoiz ez dute hartu parte 16 selekzioak. Aurten bai; izan ere, azken urteetako mapa politikoak sekulako mugimendua izan du. Jugoslavia eta SESB desagertu zirenetik nazioak ugari ateratu dira. Nazioarteko Saskibaloia Federazioak (FIBA) Aurre-Europarra antolatu behar izan zuen derrigorrez, Radja, Zdovc, Sabonis eta hauei Eurobasketean jokatzeko ez uzteak logika handirik ez zuelako. Azkenean 16 izango dira, aurretik zeuden 11 ken Jugoslavia (NBE-k jarritako zigorra medio), gehi Eslovenia, Bosnia eta Kroazia Balkanetatik eta Estonia eta Letonia Baltikotik. Hortaz, duela bi urte Italian jokatu zen Europako Txapelketatik gauza asko mugitu da, Europako mapa zeharo aldatu da eta berriro guztia ordenan jarri behar da. Duela bi urtekoak ez du balio, zeren eta urtea lortu zuten Perasovic, Radja eta Tabak-ek orain ez dute Jugoslavia ordezkatzeko, Kroazia baizik.

16 TALDE Orotara lau
4 MULTZOTAN mutzo ditugu.
BANATUTA A eta C-ekoek

Karlsruhe-n jokatu dute eta B eta E-koek Berlinen. Multzo bakoitzetik hiru sailkatuko dira eta gero beste bi multzo osatuko dira. Bata A eta C-k osatua eta bestea B eta E-k osatua. Multzo bakoitzeko sei talde, beraz. Aurreko faseko garaipenek balio dute eta fase berri horretan hiru partidu baino ez dira jokatu, beste multzokoekin kontrakoak hain zuzen ere. Seiko multzo hauetik, bakoitzetik lau sailkatu egingo dira, finalerdiak (jadanik Munich-en) gurutzatuta jokatu: A eta C-k osaturiko multzoko aurrenak B eta E-ko laugarrena izango du aurkari eta abar. Irabazleak finalerdiak. Eta hor ere gurutzatuta. Gero finala.

KROAZIA Txapelektako fabo-
FAVORITO ritoa, Kroazia da.
NAGUSIA Nahiz eta Drazen Petrovic hildakoaren eta Kukoc



Kukoc (7) eta Petrovic (4) izango dira Kroaziako hutsune nabarmenenak.

Huts egiteak

E. E. / DONOSTIA

Inoiz baino selekzio gehiago izango dugu aurtengo Europako Txapelketan, baina inoiz baino kalitate gutxiagoko lehiaketa izango da; izan ere, parte hartzeke jokalaririk piloa geratu dute. Egin dezagun selekzio bat, ekipo titular batetik hasita: antolatzaile Drazen Petrovic, eskolta Marchulenis, hegaltzailea Kukoc, lau postuan Divac eta center-a Sabonis. A zer-nolako bostekoa. Ordezko, 1 eta 2 postuetarako Da-

nilovic, Djordjevic, 3 posturako Paspalj eta Volkov, 4rako Schrempf eta pibot posturako Muresan eta NBAko Indiana Pacers-en jokatzeko duen Smits holandarra. Batzuk lesionaturik daudelako ez dira Alemanian izango (Schrempf eta Kukoc), beste bat hil egin delako (Petrovic), beste batzuei NBEk ez die parte hartzeke utzi (Djordjevic, Danilov, Paspalj eta Davic serbiarrei), beste batzuen selekzioak ez dira sailkatu (Smits eta Marchulenis eta Sabonis taldeak)...

tsu-indartsurik. Italiak talde berria du, duela bi urteko Eurobasketetik hiru baino ez dira errepikatzen dutenak: Gentile, Pittis eta Rusconi. Hala ere, orain egun batzuk Kroaziari irabazi zion eta

KARLSRHE-N		BERLIN-EN	
A MULTZOA	C MULTZOA	B MULTZOA	D MULTZOA
○ Espainia	○ Italia	○ Frantzia	○ Eslovenia
○ Errusia	○ Grezia	○ Bulgaria	○ Alemania
○ Bosnia-Herz.	○ Letonia	○ Kroazia	○ Estonia
○ Suedia	○ Israel	○ Turkia	○ Belgika

Palmaresa

Urtea	Non	Urtea	Zilarra	Brontzea
1935	Geneba	Letonia	Espainia	Txekoslo.
1937	Riga	Lituania	Italia	Frantzia
1939	Kaunas	Lituania	Letonia	Polonia
1946	Geneba	Txekoslo.	Italia	Hungaria
1947	Praga	SESB	Txekoslo.	Egipto
1951	Parise	SESB	Txekoslo.	Frantzia
1953	Mosku	SESB	Hungaria	Frantzia
1955	Budapest	Hungaria	Txekoslo.	SESB
1957	Sofia	SESB	Bulgaria	Txekoslo.
1959	Istanbul	SESB	Txekoslo.	Frantzia
1961	Belgrad	SESB	Jugoslavia	Bulgaria
1963	Wroclav	SESB	Polonia	Jugoslavia
1965	Tblisi	SESB	Jugoslavia	Polonia
1967	Helsinki	SESB	Txekoslo.	Polonia
1969	Caserta	SESB	Jugoslavia	Txekoslo.
1971	Essen	SESB	Jugoslavia	Italia
1973	Bartzelona	Jugoslavia	Espainia	SESB
1975	Belgrad	Jugoslavia	SESB	Italia
1977	Liege	Jugoslavia	SESB	Txekoslo.
1979	Turin	SESB	Israel	Jugoslavia
1981	Praga	SESB	Jugoslavia	Txekoslo.
1983	Nantes	Italia	Espainia	SESB
1985	Stuttgart	SESB	Txekoslo.	Italia
1987	Atenas	Grezia	SESB	Jugoslavia
1989	Zagreb	Jugoslavia	Grezia	SESB
1991	Erroma	Jugoslavia	Italia	Espainia

Dena den, nahiko talde ona dauka Lolo Sainzek eta berekin beste era batera ariko dira Villacampa, Epi, Herreros, Rafael Jofresa edota Antonio Martin. Dominaren bat lor lezake.

Frantziak aurreko taldeka Final Four-a eskuratu du baina selekzioa asko jaisten da. Rigau, Ostrowski eta Bilba izango dira bertako liderrak. Alemaniak etxean jokatzeko du, baina Schrempf faltako zaionez, bere aukerak murriztu egin dira.

Ezustea Eslovenia izan liteke. Aurre-Europeoan aurrea izan zen, denon faborito nagusia zen Kroaziaren aurretik. Eta arraroa bada ere, bere jokoa ez da Balkanetakoekin egin ohi dutena; izan ere, besteek joko librean eta inspirazioan oinarritzen badute jokoa, Esloveniak seriotasunean oinarritzen du. Zdovc basea eta Kotnik pibota (2.06) dira talde honetako liderrak. Domina irabazteko aukerak.

Beste selekzioetatik ez da ia ezer espero.

Huts batzuk konponezinak dira (lesionatuena eta hildakoarena), beste batzuk hain harroak (Aurre-Europarrean ez jokatzeko erabaki zuen Sabonis lituaniarra) ez izanda, Alemanian izan zitezkeen, baina beste batzuek huts egitea barkaezina da, ez euren errua delako, politika kirolean sartzen delako baizik, Nazio Batuen Erakundeak Serbiari jokatzeko ez uztean. Akaso, Divas, Danilovic eta hauek tiroka has daitezkeela pentsatuko dute NBEko gizontxoek.

kontuan hartzeko selekzioa izango da. Espainiak Bartzelonako Jokoetako selekzio beretsua du, nahiz eta orduan porrot izugarria jaso —oraindik ez dira ahaztu Angolako jokalariez—.